


Euskal Selektzioaren mendi martxa eta  
aldarrikapenaren aldeko mozioa

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2016 UZT 19	
SARRERA	IRTEERA	
1754		


Agiri honen bidez Oñatiko Udalak, bere atxikimendua adierazi nahi dio Euskal Selektzioaren Aldeko Mendi Martxak antolatzen duen Mendi Martxari.

Euskal Selektzioaren Aldeko Mendi Martxarentzat ezinbestekoa da kirol arlo guztietan euskal kirolariek duten erabakitze eskubidea errespetatzea eta, aldi berean, norberaren selektzioa aukeratzeko ahala izatea.

Arlo bakoitzean Federazio Nazional bat osatzea nahi dugu. Euskal Herrian badira adibideak eta, horien bidez, frogatu da posible dela egitura nazional bat sortzea eta arrakastaz funtzionatzea. Federazio nazionalaren erakusle ditugu: AEK, Ikastolen Elkarte, Bertsolari Elkarte eta Pilota Federazioa.

Oñatitik, agiri honen bidez, bultzada bat eman nahi genioke Euskal Selektzioen aldeko ekimen honi.

Ongi etorri Oñatira, gora Euskal Selektzioa.



Oñati, 2016ko uztaila.